

Bezeroekiko harremanak

Gure enpresa arrakastatsua izatea nahi badugu hainbat gauza kontuan hartu beharko ditugu eta hauetako bat da bezeroekiko harremanak. Zati honetan, gure bezeroekin zein motatako harremanak izan nahi ditugun finkatu behar dugu.

Hau aukeratzeko, gure iritziz, harremanak zein motatako enpresekin eduki nahi ditugun finkatu beharko dugu. Gure kasuan, gure bezeroak enpresa txikiak direla kontuan hartzen badugu, seguruenik, harreman estua edukitzea oso garrantzitsua dela esan dezakegu. Hau da, harreman pertsonal bat ezarri beharko genuke, enpresa txiki horien eskaerak hobetu eta gusturago utzi ditzagun. Gure enpresaren helburua laguntza behar duten enpresa horiei gure produktuekin laguntzea da, ingurumen jasangarri bat sustatuz.

LABURBILDUZ: Bezeroekiko harreman estu eta pertsonal bat lortu beharko genuke, gure produktuak eskaintzen dizkiegun enpresa txikiei ahalik eta produktu hoberena eskaini ahal izateko.